

## Gazteentzako apartamentuak - Betekizunak

### **Etxebizitza premia**

Bizikidetzaren unitateko pertsona guztiek ez dute etxebizitzarik eduki behar jabetzan, jabetza soilan, azalera eskubidean edo usufuktuan, etxebizitzak kalifikatzen diren egunaren aurreko bi urteetan.

#### **Salbuespenak:**

- 1) Azaroaren 30eko 317/2002 Dekretuan ezarritako gutxieneko bizigarritasun baldintzak ez betetzea eta kalifikazio data baino gutxienez bost urte lehenago eskuratua ez izatea.  
Teknikari eskudun baten txostenaren arabera eraikuntza soluziorik onartzen ez duten akatsak bakarrik hartuko dira kontuan. Nolanahi ere, Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzetako zerbitzu teknikoek kontraesaneko txostenak egin ahal izango dituzte, eta txosten horiek lotesleak izango dira.
- 2) Banantze edo dibortzio prozesu baten ondoren edo izatezko bikoteak bereizteko prozesu baten ondoren, judizialki beste ezkontidearen familia bizileku gisa esleitua izatea.
- 3) Hipoteka betearazpena egin ondoren, hirugarren mailara arteko odol ahaidetasunezko edo ezkontzazko ahaidetasunik ez duen pertsona bati judizialki edo notarioki esleitua izatea.
- 4) Pertsona bakoitzeko 15 metro koadrotik beherako azalera erabilgarria izatea.
- 5) Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan (hiri inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen) sarbideei eta jasogailuei buruz jasotako zehaztapenak betetzen ez dituen eraikin bateko parte izatea, betiere bertako kideren bat mugikortasun urri iraunkorra duen pertsona desgaitua bada.

→ Aurreko kasuetan aipatzen den etxebizitzaren titulartasuna bateragarria da beste pertsona edo bizikidetzaren unitate batzuen ohiko bizileku iraunkorra den beste etxebizitza baten edo batzuen jabetza, jabetza soila, azalera eskubidea edo usufuktua % 50etik beherakoa bada, betiere partaidetzen guztizko balioa 75.000 eurotik gorakoa ez bada.